



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2019ko urriaren 15ean, arratsaldeko 19:00tan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidentek, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2019/228 Dekretua

2019/233 Dekretua

2019/236 Dekretua

2019/258 Dekretua

2019/262 Dekretua

2019/269 Dekretua

2019/279 Dekretua

2019/240 Dekretua

2019/235 Dekretua

2019/254 Dekretua

2019/259 Dekretua

2019/265 Dekretua

2019/278 Dekretua

2019/281 Dekretua



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2019/282 Dekretua	2019/284 Dekretua
2019/285 Dekretua	2019/296 Dekretua
2019/306 Dekretua	2019/307 Dekretua
2019/344 Dekretua	2019/345 Dekretua
2019/346 Dekretua	2019/353 Dekretua
2019/354 Dekretua	2019/365 Dekretua
2019/367 Dekretua	2019/370 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA. LIZARTZAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO HITZARMENA

Idazkaritzak 2019ko urriaren 4an egindako txostena ikusi da, udal honek eta Lizartzako Udala eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren artean, Lizartzako Udal Erroldaren Lagapenari buruzko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitezkeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2019ko irailaren 30an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2019ko urriaren 4ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udala eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren artean, Lizartzako Udal Erroldaren datuak egiaztatzeko administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO
IDAZKIAK UDAL ERREGISTROETAN AURKEZTEKO
LANKIDETZA

Idazkaritzak 2019ko uztailaren 5ean egindako txostena ikusi da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Lizartzako Udala Toki Erakundearen arteko Lankidetzak Hitzarmena onartzeko aplikatu daitezkeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.


Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2019ko ekainaren 6an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2019ko abuztuaren 2ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Lizartzako Udala Toki Erakundearen arteko Lankidetzak Hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako udalburua den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-arabidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

BOSTGARRENA. UDAL ZERGAK. 2020 URTERAKO TARIFA ALDAKETAK

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tarifak honela geldituko lirateke:

IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	2014 URTEA	IPC 2014-2019 4,2 %	2020 URTEA
TURISMOAK	9 ZF. Baina gutxiago	35,00	1,49	36,49
	9tik11,99 ZF. Bitarte	66,42	2,44	68,86
	12tik 13,99 ZF. Bitarte	114,02	3,89	117,91
	14tik 15,99 ZF. Bitarte	158,06	5,22	163,28
	16tik 19,99 ZF. Bitarte	204,01	6,61	210,62
	20 ZF. Gorakoak	248,28	7,95	256,23
AUTOBUSAK	21 eserlekutik beherakoak	156,53	5,17	161,70
	21etik 50 bitartekoak	222,83	7,17	230,00
	50etik gorakoak	278,61	8,36	287,47
KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarritik behera	79,44	2,95	82,28
	1000tik 2999 bitartekoak	156,53	5,17	161,70
	2999tik 9999 bitartekoak	225,01	7,24	232,25
	9999tik gorakoak	278,61	8,86	287,47
TRAKTOREAK	16 ZF beherakoak	33,21	1,44	34,65
	16tik 25 bitartekoak	52,18	2,01	54,19
	25tik gorakoak	156,53	5,17	161,70
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA	750tik 1000 bitartekoak	33,21	1,44	34,65
	1000tik 2999 bitartekoak	52,18	2,01	54,19
	2999tik gorakoak	156,53	5,17	161,70
ZIKLOMOTOREAK		8,30	0,68	8,98



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

MOTOZIKLETAK	125 c.c. Bitartekoak	8,30	0,68	8,98
	125tik 250 bitartekoak	14,21	0,86	15,07
	250tik 500 bitartekoak	28,50	1,30	29,80
	500tik 1000 bitartekoak	56,93	2,16	59,09
	1000tik gorakoak	113,82	3,88	117,70

Ibilgailuen Gainerako Zergaren Tarifa Aldaketako proposamena, aho batez onartua izan da.

UR HORNIDURA TASAREN TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA

Ur Hornidura Tasaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Ur Horniduraren Tasaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Ur Hornidura Tasa honela geldituko lirateke:

TARIFA HAUEN BIDEZ REKAUDAZIOA- 0,32 – 0,46 – 0,60

KONTZEPTUA		GUZTIRA	BENETAN JASO DENA
Ura-Etxeak	270 kontag x 36 m ³ x 0,32 x 4	12.441,60	12.050,88
- Lokalak	11 kontag x 36 x 0,46 x 4	728,64	970,72
- Industriak	12 kontag x 36 x 0,60 x 4	1.036,80	13.248,72
Infraestruktura Kanona	293 kontag x 7,00 x 4	8.232,00	8.232,00
Kontagailuen Kanona	293 kontag x 1,35 x 4	1.587,60	1.587,60
SARRERAK GUZTIRA		24.026,64	36.089,92
GASTUEN AURRIKUSPENA			
Gipuzkoako Urak	Ura Kontsumoa – 70.000 m ³ x 0,7538 €/m ³	52.766,00	
	Infrasetruktura Kanona	17.600,00	
	Kalitate Kontrola	870,00	
	Bestelako Mantenimenduak	3.000,00	
GASTUAK GUZTIRA		74.236,00	
DIFERENTZIA		- 50.209,36	- 38.146,08



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Ur Hornidura Tasa Tarifa Aldaketako proposamena, aho batez onartua izan da.

ZABOR ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK ETXEZ ETXE BILTZEAGATIKO TASAREN TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA

Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeagatiko Tasaren tarifen aldaketarako tramitatutako espedienteak ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeagatiko Tasaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.


Horren arabera, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeagatiko Tasa honela geldituko lirateke:

ZABORRAK

KONTZEPTUA	URTEA	SARRERAK	IRTEERAK	DIFERENTZIA
ZABORRAK	2019			
Sarrerak – Aurrikuspenak		27.240,00		
Tolosaldeko Mankomunitatea			20.628,74	
GUZTIRA		27.240,00	20.628,74	6.611,26
ZABORRAK	2020			
Sarrerak – Aurrikuspenak		29.108,00		
Tolosaldeko Mankomunitatea			20.835,03	
GUZTIRA		29.108,00	20.835,03	8.272,97

TARIFAK

KONTZEPTUA	2019	2020
Zaborrak – Etxeak – 320 Err	18,00 €/hiruhilab	19,00 €/hiruhilab
Zaborrak – Lokalak – 12 Err	30,00 €/hiruhilab	31,50 €/hiruhilab
Zaborrak – Industr – 13 Err	60,00 €/hiruhilab	63,00 €/hiruhilab
PROPOSAMENA	2020	SARRERAK
Zaborrak – Etxeak – 320 Err	19,00 €/hiruhilab	24.320,00
Zaborrak – Lokalak – 12 Err	31,50 €/hiruhilab	1.512,00
Zaborrak – Industriak – 13 Err	63,00 €/hiruhilab	3.276,00
GUZTIRA		29.108,00



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeagatiko Tasa Tarifa Aldaketako proposamena, aho batez onartua izan da.

SEIGARRENA. KREDITU ALDAKETA 2019/03

“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 3 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratu aho batez, honako hau

ERABAKI DA

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
131.337.30.01	Begiraleak	3.000,00	1.042,65	4.042,65
160.337.30.01	G.S. Begiraleak	1.000,00	378,54	1.378,54
210.161.00.01	Ur Tuberi, Depositu, e.a. Mantenimendua	1.000,00	500,00	1.500,00
211.153.40.01	Bestelako Mantenimenduak	1.200,00	500,00	1.700,00
212.152.20.04	Udaletxeko Berogailuaren Mantenimendua	1.534,76	848,17	2.382,93
224.912.00.99	Udalkideen Bizi Aseguruak	0,00	1.432,26	1.432,26
224.920.00.99	Erresponzabilitate Zibilaren Aseguruak	1.500,00	45,60	1.545,60
227.151.10.07	Arkitektoa	15.000,00	10.000,00	25.000,00
227.332.20.07	Artxiboaren moldaketa	-----	9.680,00	9.680,00
430.338.00.01	Festetako Batzordea	12.000,00	3.827,20	15.827,20
481.335.00.01	Erakundeei Laguntzak	8.725,00	785,00	9.510,00
GUZTIRA		44.959,86	29.039,42	73.999,18



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
399.388.00.01	Festak. Sarrerak	-----	5.751,50	5.751,50
410.000.00.99	E.J. Bestelako Transferentziak	-----	4.840,00	4.840,00
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	80.631,25	18.447,92	99.079,17
GUZTIRA		80.631,25	29.039,42	109.670,67

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

ZAZPIGARRENA. MOZIOAK

Ez dago moziorik.

ZORTZIGARRENA. BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpi t'erdietan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK

Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia